

IRUÑEKO EMAKUMEEN ETXEA SORTZEKO PROZESUAREN BOSGARREN SAIOA

Plazara!, 2018ko ekainaren 6a. 18:00 – 20:30.

1. Saioaren aurkezpena.

Gai zerrendaren berri eman da, laburki. Honako bi atal hauek adostutzat eman dira: filosofia eta jarduerak. Momentuz, zerbitzuen atala baztertu da, Iruñeko Udaleko Berdintasuneko Zerbitzuak lanean ari baitira Berdintasun Gunearen inguruan.

2. Emakumeak eta emakumeen kolektiboak identifikatzeko **puzzle**aren ariketaren errepasoa.

3. “Manta bildu” ariketa.

Hainbat manta paratu dira lurrean, eta bertaratuei eskatu zaie haien gainean jarrita eta hortik atera gabe biltzen saiatzeko.

Besteak beste, honako ondorio hauek aipatu dituzte:

- Eremu txiki batera egokitu behar dute, kasurako, Emakumeen Etxera.
- Denek engaiatu behar dute helburuak lortzeko.
- Modua adostu beharra dago, eta beste talde batzuek egiten zutenarekin ikasi.
- Asko izatearen abantailak eta desabantailak. Laguntza topa daiteke, baina zailagoa da adostasunak lortzea.

4. Etxearen **kudeaketaren eta finantzaketaren** inguruko adostasuna.

Emakumeen Etxearen Elkartearen eta Udalaren arteko kogestioa; Etxearen antolaketa eta erabakiak hartzeko modua eta emakumeek izango duten parte-hartzea hala etxean nola haren organoetan (baldintzak eta ardurak).

A. Kudeaketa- eta funtzionamendu-eredua.

Hiru taldeen ondorioak aurkeztu dira.

- **Parte hartzeko bidea:** Emakumeen Etxearen Elkartearen Batzarra. Elkarteko kide izateko baldintzak honako hauek lirateke: “Nork bere burua emakumetzat hartzea” eta elkartearen estatutuak onartzea.
- **Kogestioaren eredua:** Hasiera batean, uste dute Udalak funtzionatzeko finantzaketa-minimo bat bermatu beharko lukeela eta Elkartea bat izan beharko lukeela independentea izateko.

Haien ustez, gutxienez teknikari bat kontratatu beharko litzateke Etxea kudeatzeko. Pertsona horrek prestakuntza izan beharko luke honako gai hauetan: feminismoa, pertsonen dinamizazioa eta finantza-baliabideen kudeaketa eta administrazioa. Uste dute Batzarrean eta beste gune batzuetan erabakiak modu horizontalean hartu behar direla.

Oso garrantzitsutzat jo dute langile horren bidez Etxearen kudeaketan autonomia gordetzea.

B. Finantzaketa-eredua

Aipatu dute zenbait hitzarmen sinatu behar direla, horietako bat gunea edo eraikina lagatzeko hitzarmena, zeinean idatziko baita Udalaren eta Elkartearen arteko akordioa errespetatu beharrekoa dela, maila politikoan edo alderdi politikoei dagokienez edozein aldaketarik egonda ere.

Proposatu da talde eragile bat egon dadila hainbat batzorde koordinatze aldera, eta batzordeetako batek aurrekontua kudeatzea. Argi dute entitateek ez dutela etekinik atera behar Etxean egiten diren jarduerekin. Halaber, baloratuko da hitzarmenak lortzea beste erakunde publiko batzuekin.

Aurreko bileretan nahiz honetan jasotako guztiarekin agiri bat egingo da, hain zuzen, Etxearen zirriborro-proposamena, eta hurrengo bileran aztertuko da.

5. Etxerako **erabil daitezkeen eraikinei** egindako bisitaren aurkezpena. Bisitara joan ziren emakumeek hiru eraikinen inguruan duten iritzia azaldu dute. Emakume guztiek bat egiten dute esatean eraikinetako ezeinek ere ez dituela betetzen eskatzekoak diren gutxieneko ezaugarriak.

Beste eraikin bat baloratu da, hasiera batean ezinbestekotzat jo diren baldintza hauek gehienak beteko lituzkeena:

- ❖ Ingurune eta barnealde irisgarria
- ❖ Garraio publikoa hurbil
- ❖ Ez izatea puntu beltz edo kritikoa
- ❖ Handia izatea
- ❖ Argi naturala izatea
- ❖ Erraz ikusteko modukoa izatea
- ❖ Joan-etorriko leku bat izatea
- ❖ Ahalik eta azkarren okupatu ahal izatea

Etorkizunean aztertuko litzateke Etxea zabaltzeko edo metro gehiago eskatzeko aukera. Politikariekin hitz egingo da. Hainbat emakume prest agertu dira politikariekin hitz egiteko.

6. Itxiera

Guztiei gogoratu zaie hurrengo bilera azkena izango dela.